

Argitu eiguzu zentzua,
maitekor egin bihotza,
indar iraunkorrez osatu
gaitz-bera dogun gorputza.

Haizatu gugandik etsaia,
eiguzu, arren, bakea,
Zu aurretik zaitugula,
urrundu eiguzu kaltea.

Erakutsi eiguzu Aita,
erakutsi Semea guri;
bien Arnasa zarala
sinistu dagigun beti.

*(Andra Mariari, Espiritu Santuaren graziaz beteari es-
keinitako kantu batez amaitu daiteke otoitzaldia)*

6. GIDOIA - LEHENTASUNAK JARRI

Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun al-
karregaz zelan hitz egiten deuskun Jaungoikoak bizi
dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gi-
zarteko eta Eleizako inguruabar honetan eta zelan eran-
tzun deikeogun, hankak lurrean doguzala, gure auke-
rak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.

Oharrak

- Batzar honek atal bi ditu: **itaunketari erantzutea eta otoitza**. *Evangelii gaudium* idazkitik jasotako testurik ez da eskeintzen; bai, ostera, V. EEEtik hartutako atal batzuk.
- Ezinbestekoa da, erantzunak **aurretiaz prestatzea** norberak, batzarrera joan aurretik.
- **Lehentasuna jartzeko** ordua da. Hau da, gauza batzuk beste batzuen aurretik jartzekoa, garrantziaren arabera, zeintzuk lehenago eta zeintzuk geroago betetzekoak diran ahalik eta ondoen zehaztuz.
- Horretarako **irizpide edo kriterioak** ondorengo honek izan daitezke: eragina inguruan, urrunduekiko hurbiltasuna, betetzeko erraztasuna, horretarako pertsonak eta baliabide egokiak izatea, egin

* * *

OTOITZALDIRAKO PROPOSAMENA

Sarrera

Elizbarrutiko beste hainbat talderekin batera, ibilbide berezi bat egiten gabiltza, Ebanjelioa gaur bizi eta iragartzeko bideak bilatzen eta gaurkotzen ahaleginduz. Jainkoaren Espirituak eraginda egiten dogu hori. Berak eusten deutso gure fedeari, gure otoitzari, gure testigantzari. Beragana joko dogu bereziki gaurko otoitzaldian, Pazko aldi honetan

Himnoa

Zatoz, bai, Gogo Guren
eta bidal zerutik
zure argi izpia.
Zatoz, gaixoen aita,
zatoz, dohai emoile,
zatoz, bihotzen argi.

Poz-emoile bikaina,
etxelagun atsegin,
sargorian haize fin.
Lan artean atsedean,
nekean aringarri,
malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu,
zintzoen bihotzeko
zirrikiturik barnena.
Zure laguntza barik
ez dau gizakiak ezer,
ez dau ezer on danik.

Garbi, zikin dagoana,
busti, lehor dagoana,
zauri guztiak osatu.
Gogor dagoana bigundu,
makur dagoana zuzendu,
hotz dagoana berotu.

Zugan uste on daben
zintzoei ixuri
zazpi dohai zerutik.
Zintzo-saria emon,
osasuna hil artean,
poza betierean. Amen. Aleluia.

44. Goiburuak *-Atera bidera!* - Egitasmoaren sena jaso gura dau. Ebanjelizazioaren misiolari alderdia nabarmendu gura da, deialdia, iragarpena eta fede proposamena sendotu. Barne hartzen dau, beraz, aitatu barri dogun aita santuaren Burubidearen xede nagusia eta aurreko Egitasmoaren ebaluazioan egiaztatutakoa, hau da, helburu misiolaria izan zala gehien landu zana eta, aldi berean, emaitzarik eskasak izan ebazana.

45. Goiburuak egiten dauan konbitea hiru jardunlekuetan zehazten da, bananduta ez ezik, euren artean nahitaez lotuta dagozan hiru arlotan: espiritualtasunarena, alkartasunarena eta komuninoarena. Lehenengoa, Jesukristogaz bat egitetik sortzen da, goiburu lez aukeratu izan dan ebanjelioko aitame-nari jarraituz: Jauna da heltzen dana, datorrena eta bere bila ateratea eragiten dau. Bat egite hori da kristinau nortasunaren, bere lekukotasun eta misi-noaren oinarria. Honen haritik, lehenengo iragarpena, bihotz-barritzeko deia eta katekumenotzan txertatzea zelan egiten dan aztertu egin behar da. Espiritualtasun sendoa lantzeko bideak jarri behar dira, bizitza bera aldatu daian eta Jesusen benetako ikasle eta misiolari bihurtu gaizan. Gure Eleizako plataformen gaitasun ebanjelizatzailea, euren ingurura egokituta dagozan ala ez, jarritako helburuak, eragileak, egitarauak, lagungarriak, bitartekoak, metodoak, estiloak... zertan diran be aztertu beharko da.

ezik izan daitekezan kalteak, ondoren onuragarriak, orain arte gutxi landutako arloa izatea...

- **Tokian tokiko** lehentasunak aukeratu behar dira orain, taldearentzat ezagunena dalako eta bertan egin daitekeena zehaztu behar dalako.
- **Elizbarruti osorako** bereizmena datorren urtean egingo da, taldeak 4. eta 5. gidoietan elizbarrutiarentzat proposatutakoa abiapuntutzat harturik. Horrez ganera, gogoan izan behar dira Egitasmoaren 55. zenbakian aitatzen diran lau eginkizun nagusiak: Kristinau Sarbidearen Direktorioa ezartzea, bake eta adiskidetzearen ardura lantzea, pastoral erabarritzea finkatzea eta parroketako erreferentziak izendatzea.

GOGORATUZ

Egitasmoaren sena ekarri nahi dogu gogora (V. EEE 43-47):

43. *Evangelii gaudium* (EG) bere Burubide apostolikoan *lekuko Eleiza baktxari bereizketa, arazte eta erabarritze prozesu ausartari* (EG 30) ekiteko konbitea egiten deusan Frantzisko aita santuaren jarraibideak kontuan hartu nahi ditu Egitasmo honek. Horrela, gure elizbarrutiaren bizitza barriztu nahi dau, bidera aterateko, bihurtze pastoralerako, bat egiteko prest dagoan Eleizarantz jo nahiez.

Irakurgaia (Erm 8,14-17)

Espirituak Jainkoaren seme-alaba lez bizi eta jokatzeko ahalmena eta adorea emoten deuskuz.

Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak Jainkoaren seme-alaba dira. Zuek ez dozue hartu esklabu egingo zaituen espirtua, berrero bildurretan bizitzera eroango zaituena. Zuek seme-alaba egiten zaituen Espiritua hartu dozue, eta Espirituaren bidez “*Abba!*”, hau da, “*Aita!*”, esanez deitzen deusazue Jainkoari. Espiritu berberak barrutik autortzen deusku Jainkoaren seme-alaba garala; eta seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide. Eta nekeetan Kristoren kideko garanez gero, aintzan ere beraren kideko izango gara.

JAUNAK ESANA

(Isilunea, hausnarketarako; gero, Hitzak adierazotakoa komentatu daiteke taldean)

Otoitza

Zatoz, zintzoen barnera,
Espiritu sortarazle;
bete graziaz bihotzok,
Zu zaituelako egile.

46. Bigarren arloa, Frantzisko aita santuak *bizitzaren kanpoaldeak* (EG 20, 30, 46, 53, 59, 63, 191 eta 288) deitzen dituanetara jotean zehazten da; horixe, era guztietako txiro eta behartsuengan, sufritzen dabenengan eta bilatzen diharduenengan bereziki mamintsu eta ageriko gertatzen da Jaungoikoaren arpegia. Gaur egun gure anai eta arriben hainbeste zauri eta gabeziaren ikuskizun mingarria dogu aurrez aurre. Gabezia materialak, txirotuengan, behartsuengan, bizileku bakoengan. Gabeziak lan, itxaropen eta etorkizunari begira. Afektibitate-gabeziak etxeko - genero - indarkerian, gaixoen eta zaharren bakartadean. Gabezia espiritualak Jaungoikoaren maitasuna ezagutzen ez dabenengan, etsipenean edo porrot-sentsazioan bizi diranengan, bizitzari zentzunik aurkitzen ez deutesenengan, traizioa, desilusioa, samintasuna, ezinikusia bizi izan dabezanengan. Gabezia sozialak duintasuna autortzen ez jakenengan, bertan behera itzita-koengan, “kanpoan izten dauan kultura” jasaten dabenengan, euren beharrizan eta sufrimentuak inork kontuan hartu barik bizi diranengan.

47. Hirugarren arloak eleiz komuninoa sendotu gura dau, danon arteko, fededunon eta alkarte desbardin-aren arteko bategitea bultzatu, aniztasuna batasunean biziz Espirituaren doe lez; Mendekoste jardura ebanjelizatzaileko. Komunino hau etenbako bihotzbarrizetik, besteagana zabaltzetik, bestea neurea be badala eta familia bereko kide garala eta bertan testigantza eta ebanjelizazinarako beharrezkoak diran doe eta karisma desbardinak buztartzen dirala jaubetzetik.

ITAUNAK

1. Orain arte alkarrekin landutakoa erreparatuz, aukeratu konfiantza, poza edo itxaropena sortzen deutesuezan gauza BI, eta bildurti, urduri edo desanimaturik jartzen zaituen BI.

2. Seguruenik, 4. eta 5. gidoietan *zer egin, itxi edo aldatu* behar izango litzatekeena aztertzean, argibide batzuk agertu dira. Euroatik abiatuz eta *Egitasmoaren sena* —hau da, ***urteer-
ran dagoan Eliza, batez ere solidaritzan, espi-
ritualtasunean eta elkartasunean***— aurrean izanik, proposatu lehentasuna izan beharko leuken ekintza bat taldeak 4. eta 5. gidoietan landutako arlo bakoitzerako:

- Iragarpenean
- Zerbitzuan
- Liturgian
- Alkarte bizitzan
- Azpiegituran

3. Zer egin behar dan jakiteak garrantzia handia dauka; *zelan egin* zehazteak ez dauka gutxiagorik. Aztertutakoa gogoratu, ***zer jarrera*** (norberak eta alkarrekin) eragin eta mantendu beharko geunke ondorengo urteotan?

**Maiatzaren 15a baino lehenago *bialdu eran-
tzunak, mesedez.***